

I. "HONDARRIBIKO GAZTELUA" XAKE AKTIBO TXAPELKETA

TXAPELKETAREN ARAUDIA

1. Modalitatea:

Bakarkako txapelketa, 6 txandako Sistema Suitzarrean.

2. Data:

Txapelketa 2011ko irailak 4an, igandean, jokatu da.

3. Jokolekua:

Txapelketa Hondarribiko Carlos V paradorean dagoen Tapizen aretoan jokatu da. Paradorea Hondarribiko hirigune historikoan dagoen Arma plazan dago kokatuta.

4. Ordutegia:

Partiden ordutegia ondorengoa izango da:

1^o Txanda : 9:30ean

2. Txanda : 10:20ean

3. Txanda : 11:10ean

4. Txanda : 12:00ean

5. Txanda : 12:50ean

6. Txanda: 13:40ean

14:30-tan saribanaketa egingo da sarituak bertaratzea derrigorrezkoa izanik. Ondoren parte hartzaile guztientzat "lunch" bat eskeiniko da.

5. Joko erritmoa:

Jokalarri bakoitzak 20na minutu izango ditu partidako.

6. Izen-ematea:

*Orokorra: 15€ parte hartzaile bakoitzeko.

*16 urte azpikoentzat eta 60 urte baino gehiago dutenentzat: 10€.

Adinaren kalkulua egiteko hartuko den data: 2011-01-01

Izena emateko 669577841 Telefono zenbakira deitu (Ramón).

OHAR GARRANTZITSUA: Joko aretoak 50 jokalarira mugatzen du partaidetza. Partaidetzaren zerrenda izen-ematearen ordena zehazki jarraituz beteko da.

7. Sariak:

1^o sailkatua: 120€ eta garaikurra

2.en sailkatua: 75€ eta garaikurra

3.en sailkatua: 50€ eta garaikurra

Sari bereziak:

– 1700 ELO edo gutxiago duen 1^o sailkatua: Garaikurra

– 16 urte baino gutxiago duen 1^o sailkatua: Garaikurra

– 60 urte baino gehiago duen 1^o sailkatua: Garaikurra

Sariak banaezinak dira. Jokalarri batek ez du sari bat baino gehiago jasoko.

8. Epailea:

Epaile lanak Juanjo Escribanok (FIDE Nazioarteko Epailea) egingo ditu, Enrique Oiarzabal (FIDE Nazioarteko Epailea) eta Javier Oyarzabalen laguntzarekin . Epaile lanari dagokion beste administrazio lanak Beñat Escribanok egingo ditu.

9. Jokalarri batek txanda batera arrazoirik eman gabe kale egingo balu, txapelketatik kanporatua izango litzateke.

10. Ezberdintze sistema txapelketa bukatzerakoan honako aukeretatik zozketatuko da :

- Sistema progresiboa
- Bucholz ertaina
- Bucholz totala
- Performancea

Ezberdintze sistema sailkapen orokorrerako nahiz sariak lortzeko baliagarri izango da. Sariak berdindutako jokalarrien artean ez dira banatuko.

11. Araudi hauetan agertzen ez den guztirako FIDE-ren legeak erabiliko dira. Txapelketan parte hartzeak oinarri hauek eta gainontzeko araudi guztiak onartu eta betetzea darama.